

OGASUN ETA EKONOMIA-SUSTAPENERAKO ARLOA
AREA DE HACIENDA Y PROMOCIÓN ECONÓMICA

ZERGEN KUDEAKETA ETA IKUSKARITZA ATALA
DEPARTAMENTO DE GESTION DE TRIBUTOS E INSPECCION FISCAL

TXOSTENA

Gaia: Ordenantza Fiskalak aldatzeko espedientea, aldaketa horiek 2014an indarrean sartu daitezzen.

- Hona hemen talde politikoen akordio bidez egindako aldaketen laburpena, Udalbatzak onartuz:

1. Ordenantza Fiskaletan egindako aldaketak

a. ORDENANTZA FISKALA, ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA

21. artikulua.- Familia ugariaren titularrek zergaren kuota osoaren hobaria jasotzeko eskubidea izango dute, behean adierazitako taularen arabera:

| | | | |
|--|------------|------|------|
| SEME-ALABEN KOPURUA | 3 | 4 | >4 |
| HOBARIA | 30 % | 40 % | 50 % |
| Diru-sarreraren Bermerako Errenta (DBE) jasotzen badute | 90% | | |

Hobari horretaz gozatu ahal izateko, beharrezkoa izango da:

1.- Higiezinaren familia-unitatearen ohiko etxebizitza izatea. Ondorio horietarako, ohiko etxebizitza izango da familia-unitateko kide guztiak errolatuta daudena.

2.- **Sailkapenaren ondorioetarako, seme-alaba minusbaliatu edo lan egiteko ezintasuna duen seme-alaba bakoitzak bi adina konputatuko du. Egoera hori eskaera egiterakoan egiaztatu beharko da.**

Hobaria subjektu pasiboak eskatu beharko du, honako dokumentazio hau erantsita:

- 1.- Hobariaren eskabidea, ondasun higiezinaren identifikatuta.
- 2.- Higiezinaren titulartasuna egiaztatzearen dokumentua.
- 3.- Familia ugariaren titulua, Bizkaiko Foru Aldundiak emandakoa (Gizarte Ekintza Saila).
- 4.- **Egoki balitz, seme-alabaren minusbaliotasuna edo lan egiteko ezintasuna egiaztatzen duen dokumentazioa.**
- 5.- **DBEa jasotzeagatik hobaria aplikatzeko, beharrezkoa izango da abenduan zehar entregatzea hurrengo urteko urtarrilaren 1ean ere DBE hori jasotzeko eskubidea egongo dela egiaztatzen duen dokumentazioa.**

Hobariak gozatzeko epeak, familia-unitateak familia ugariaren baldintza betetzen duen artean iraungo du, eta subjektu pasiboak bere egoeran eman daitezkeen aldaketen berri eman beharko du. Beste alde batetik, administrazioak hobaria ezartzeko beharrezko baldintzak betetzen ote diren egiaztatzearen eskubidea izango du; hori ofizioz egin ahal izango du, eta hobaria bidegabeki disfrutatu dela egiaztatuko balu, zergari dagozkion likidazio gehigarriak eta berandutze-interesak bidaliko dizkio subjektu pasiboari. Horrez gain, subjektu pasiboari legokiokeen zigorra ere ezarri ahal izango dio, egitate hori zerga arau-haustea litzateke eta. Hala ere, egin daitezkeen aldaketen kalterik gabe, familia ugariaren titulua iraungitzen den data hartuko da hobariaren amaiera data bezala.

DBEa jasotzen dutenen kasuan, hobariak eragina izango du berari aplikatzea eskatutako urtean bakarrik.

b. [4. ORDENANTZA FISKALA, TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEN ZERGA ARAUTZEN DUENA](#)

6.3.- Honako hobari hauek aplikatuko dira:

- a) Propulzio hibridodun ibilgailuei dagokien kuotaren % 50.
- b) Ibilgailu elektrikoari aplikagarri zaien kuotaren % 75.
- c) 5 plaza edo gehiago dituzten autoei aplikagarri zaien kuotaren % 50. Hobaria ibilgailu bakarrari aplikatuko zaio, betiere, auto horren titularra indarreko legeriaren arabera familia ugaztat jotako baten kide bada.

Aipatutako hobariak ez dira aplikatuko hala eskatzen ez bada, eta elkarren artean bateraezinak izango dira. Eskaera egin zen ekitaldiaren hurrengoan gauzatuko dira. Familia ugariaren hobariak, bestalde, indarrean jarraituko du familia-unitateak izaera hori mantendu eta kide guztiak Basauriko ohiko etxebizitzan erroldatuta dauden bitartean. Subjektu pasiboak aldaketen berri eman beharko du eta administrazioak, bere aldetik, hobaria ezartzeko baldintzak betetzen ote diren egiaztatu ahal izango du ofizioz eta, hobaria bidegabeki disfrutatu dela egiaztatuko balu, zergari dagozkion likidazio gehigarriak eta berandutze-interesak bidaliko dizkio subjektu pasiboari. Horrez gain, legokiokoen zigorra ere ezarri ahal izango dio, egitate hori zerga arau-haustea litzateke eta. Hala ere, egin daitezkeen aldaketen kalterik gabe, familia ugariaren titulua iraungitzen den data hartuko da hobariaren amaiera data bezala.

Aurrean aipatutako hobariren bat lortu ahal izateko, eskabidearekin batera honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- 1.- Eskatzailearen IFZren fotokopia.
- 2.- Hobaria zein ibilgailutarako eskatzen den.
- 3.- Zerga-hobaria eskatzen den ibilgailuaren ezaugarri teknikoen egiaztagiraren kopia.
- 4.- Familia ugariaren hobaria jasotzeko, aurrekoen gain honako hauek ere aurkeztu beharko dira:
 - a) Familia ugariaren kide guztiak ohiko etxebizitzan erroldatuta daudela jasotzen duen egiaztagiria.
 - b) Familia ugariaren titulua, Bizkaiko Foru Aldundiak emandakoa.

c. [6. ORDENANTZA FISKALA, ERAIKUNTZEN, INSTALAZIOEN ETA OBREN GAINEN ZERGA ARAUTZEN DUENA](#)

| | |
|--|----|
| ETXEBIZITZETAN EGINDAKO 18.684 €BAINO GUTXIAGOKO KONPONKETA EDO HOBEKUNTZA LANETARAKO eta 200 m ² baino gehiagoko azalera duten lokaletan egindako obretarako TASA GUTXITUA | 2% |
|--|----|

d. [14. ORDENANTZA FISKALA, IREKITZEKO LIZENTZIARI DAGOKION TASA ERREGULATZEN DUENA](#)

Ordenantza hau indargabetu egin da.

e. [15. ORDENANTZA FISKALA, HONAKO ZERBITZU HAUEK EMATEA ARAUTZEN DUENA: EUSKARA IRAKASTEA, ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA, HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO LAGUNTZA, KULTURA ETA KIROLA](#)

- ALDAKETAK KULTUR-ETXEEI DAGOKIENEZ

III.- KULTUR ETXEAK

- 1.- DBEa jasotzen duten familientzat zine-aretoetara sartzeko tarifa bat ezartzea proposatzen da: 3,00 €
- 2.- Proposatzen da DBE jasotzen duten familiei ikuskizunetarako sarrerak % 20 merkeago egitea, bai ikuskizun orokorretarako, baita haurrentzako ikuskizunetarako zein ludoteketarako ere.

- ALDAKETAK BASAURI KIROLAK-EN

IV.- BASAURI KIROLAK

LEHEN TARIFA: INSTALAZIOAK ERABILTZEKO PREZIOAK

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

...

KASU BEREZIETARAKO PREZIOAK.

-
- Medikuaren aginduz kirol-instalazioak erabili behar badira, errehabilitazioan aditua den medikuaren egiaztagiria erantsiko da. Egiaztagiri horrek jaso behar du kirol-instalazioak erabili beharra dagoela sendatzeko edota errehabilitazioa egiteko, eta gero, Basauri Kirolak-ek balioetsiko du beharrian hori.
- Gazte Txartela edota banakako karnetetarako sinatutako hitzarmenei dagozkien bestelako txartelak aurkeztea.
- Familia ugariren onurak jasotzeko, familia liburua edo egoera hori egiaztatzen duen beste edozein agiri ofizial aurkeztuko da. Horrez gain, 19 urtetik 26 urtera bitarteko seme-alabek egiaztatu beharko dute ekonomikoki familia-unitatearen menpe daudela eta, horretarako, langabezian daudela eta etxebizitza berean bizi direla jasotzen duen egiaztagiria aurkeztu beharko dute.
- 19 urtetik gorako seme-alabak familia abonamenduan sartzeko beharrezkoa izango da haiek familiaren etxebizitzan bizitzea eta ekonomikoki familia-unitatearen menpe egotea. Horretarako, langabezian daudela eta gurasoen PFEZe an ageri direla jasotzen duen egiaztagiria aurkeztu beharko dute.

...

1.- FAMILIA ABONAMENDUAK:

Horrelako abonamenduak eskatu ahal izango dituzte 19 urtetik gorako seme-alabak dituzten familiek ere, baldin eta seme-alabak familiaren etxebizitzan bizi eta ekonomikoki gurasoen menpe badaude.

...

5.- KARNETAREN KOPIA

| | |
|------------------|--------|
| Karnetaren kopia | 2,00 € |
|------------------|--------|

...

HIRUGARREN TARIFA : ALOKAIRU ARRUNTAK.

14.- PADDLEA. (ORDU BAKOITZEKO)

| | |
|--------------------------|--------|
| Paddle estali gabea | 4,20 € |
| Argindarraren gehigarria | 1,75 € |

...

LAUGARREN TARIFA : KIROL MATERIALA ALOKATZEA ETA BESTE.

1.- PUBLIZITATEA.

Arau orokor gisa, Basauri Kirolak-en instalazioetan publizitate estatikoa jartzeko tarifak honako hauek dira:

| | |
|---|----------|
| Astean 6 m ² -ra arte, ekoiztea eta jartzea kanpo utzita | 75,00 € |
| Hilean 6 m ² -tik aurrera, ekoiztea eta jartzea kanpo utzita | 250,00 € |

...

10.- TENIS ETA PADDLE ESKOLA PARTIKULARRAK

| | |
|--|---------|
| Irakaslearen lanordua, erreserba barne | 27,00 € |
|--|---------|

11.- ENTRENATZAILE PERTSONALA

| | |
|-----------------------|---------|
| Irakaslearen lanordua | 27,00 € |
|-----------------------|---------|

A.- KIROL JARDUERAK:

Instalazioa erreserbatzeko prezioaren % 170, sarrerak barne eta garbiketa kanpo.

...

| | |
|---------------------------------|---------|
| Garbiketa, langileko eta orduko | 25,00 € |
|---------------------------------|---------|